

# PRENTSA OHARRA

## NOTA DE PRENSA

### **Udalak 50 milioi euro bideratuko ditu datozen 4 urteetan etxez etxeko laguntza zerbitzura**

*2021ean 1.826 etxebizitza ezberdinetako 2.486 pertsona izan ziren zerbitzu honen onuradunak, eta 424.386 ordu eskaini ziren*

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu ditu etxez etxeko laguntza-zerbitzuak kontratatzeko espedientea eta kontratua arautuko duten preskripzio teknikoaren eta administrazio-klausula berezien agiriak.

Lizitazioaren oinarriko aurrekontua 50.962.216 eurokoa da, zabalgarria hala behar izanez gero. Eta epea, lau urtekoa. Kontratuak barne hartzen du etxean iraupen luzeko zainketak hobetzeko proiektu berritzaile bat garatzea. Proiektu hau Europar Batasuneko Berreskurapen eta Erresilientzia Funtsek (NextGenerationEU Funtsek) finantzatu dute.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua asistentziala eta prebentziozkoa da. Pertsonari bere etxean egoten laguntzea du helburu. Hala, laguntza pertsonala edo/eta etxekoa eskaintzen dio. Lanak egiteko edo/eta zainketa eskaintzeko mugaren bat duten pertsona indibidualei zein familia-taldeei zuzenduta dago. Kasu batzuetan, zainzailearentzako atseden gisa ere bai.

2021ean 1.826 etxebizitza ezberdinetako 2.486 pertsona izan ziren zerbitzu honen onuradunak eta 424.386 arreta ordu eskaini zitzaizkien. Artatutako pertsonen % 40k 85 urte baino gehiago zituen, eta %65a emakumezkoa zen.

Halaber, kontratu berrian etxeko langileen lan baldintzak hobetu dira. Bestek beste, soldatak %15etik gora igoko dira 4 urtetan (%3,75 2023an, %3,75 2024an, %3,50 2025ean eta %3,25 2026an).

### **Profesionalei prestakuntza**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Hezi eta Ikasi S.L.ri esleitzea Donostiako Udalerriko etxez-etxeko laguntza zerbitzuko profesionalei prestakuntza programa emateko zerbitzu-kontratua. Zehazki, etxean iraupen luzeko zaintza-estrategia garatzera bideratutako berrikuntza-proiektuan parte hartzen duten profesionalei eskainiko zaie formakuntza hau.

Lizitazio aurrekonua 50.700 eurokoa da, eta betetze-epea, kontratuaren formalizaziotik 2023ko urriaren 31ra arte.



# PRENTSA OHARRA

## NOTA DE PRENSA

Next Generation funtsek finantzaturako programa honen xedea etxeko laguntzaileen kompetentzia profesionalak, teknikoak eta zeharkakoak hobetzea da, mendeko pertsonak beren etxeetan behar dituzten iraupen luzeko zainketez arduratu ahal izan daitezten.

### **Ekialdeko Barrutiko Lokala**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Ekialdeko Barrutiko lokala egokitzeko exekuzio eta jarduera proiektuari dagozkion obrak kontratatzeko espediente berria. Lizitazioarako aurrekontua 415.551 eurokoa da, eta gauzatzeko epea 6 hilabetekoa.

Egun, Ekialdeko Barrutiak ez du bere jarduera garatzeko beharrezko baldintzak betetzen dituen egoitzarik. Hala, Jolastokietan dagoen lokalaren prestaketak gune egokia emango dio eremuari, bertan bizi diren donostiarrei arreta eta zerbitzua eskaintzeko.

Proiektuak lokala gune ezberdinetan banatzea aurreikusten du: Udalinfoko herritarrentzako arreta bulegorako areto bat, herritarrei arreta emateko 3 posturekin (44,40 m<sup>2</sup>), eta Ekialdeko Barrutiko Batzarraren gobernu organoaren egoitzarako gune bat, bi bulego (22,60 m<sup>2</sup> + 13.10m<sup>2</sup>) eta bilera eta batzar areto bat (71 m<sup>2</sup>), itzulpen gela (3,85m<sup>2</sup>) eta instalazio aretoa (13 m<sup>2</sup>) dituen. Instalazioan erabilera publikoko bi komun (13,60 m<sup>2</sup>) eta langileentzako *office* bat (11,25 m<sup>2</sup>) daude.

Sarrerak Udalinfoko gunera ematen du zuzenean, langa baten bidez (10,60 m<sup>2</sup>). Bertan, bulego ordutegitik kanpo erabili ahal izango diren bi autotramitazio makina berri jarriko dira, ondoan kontrol gela bat dagoela (6,90 m<sup>2</sup>).

### **Gune berdeak, parkeak eta lorategiak**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Donostiako gune berdeen, parkeen, lorategien eta zuhaitzen mantenimendurako zerbitzu kontratua xede duen kontratazio espedientea.

Lizitazioaren urteko aurrekontu osoa 6.356.351 eurokoa da, eta gauzatze-epea 3 urtetakoa.

Donostian, 2022ko urriaren 11n

